Hondarribiko Udala

Esp. Kod./Cód. Expte.: 2024ZZZK0007
Erref.: GU/MC/aga

# HONDARRIBIKO 2024KO JAIETAN JARRIKO DIREN TXOSNEN ESLEIPEN ETA FUNTZIONAMENDURAKO BALDINTZAK

## OBJEKTUA

Baldintza-plegu honek arautuko ditu **2024ko JAI NAGUSIETAN**, irailaren 6tik 11 bitarte**,** Bentako aparkalekuan ezarriko diren txosnen eskaera, esleipena, instalakuntza eta egonaldia, ondoren zehazten diren baldintzen arabera.

## ESKAERAK

1.- Eskaera egin ahal izango dute nahi duten eta indarrean dagoen legediaren arabera osatuta dauden eta Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen erregistroan erroldatuta dauden kultura, kirol, aisialdi edo gizarte mailako entitate edo elkarte guztiek, irabazi-asmorik gabeek, beti ere beraien egoitza Hondarribian badute.

2.- Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu:

- Alderdi politikoek, koalizioek eta sindikatuek.
- Kultura Sailaren iritziz, txosnekin lortutako dirua beraien helburua gauzatzeko erabiltzen ez duten elkarteek.
- Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan bereizkeria egiten duten elkarte eta erakundeek, bai sexu, bai bereizkeria anizkoitzaren arrazoiengatik. Ezta, garatzen dituzten kultur jardueretan, emakumeek gizonen baldintza beretan parte hartzea oztopatzen dutenek edo ahalbidetzen ez dutenek.
- Sexu arrazoiengatik bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalak jaso dituzten elkarte eta erakundeek, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Eskaerak onartuko dira eta ondoren zozketa bidez esleituko dira, baldintzak betetzen dituzten eta Bidasoa Eskualdean kokatuta edo ordezkatuta dauden kultura, kirol eta aisialdi elkarteen artean, baldin eta Hondarribian kokatutako edo ordezkatutako elkarteekin aurreikusitako txosna guztiak betetzen ez badira.

3.- **Interesatuek eskaerak aurkezteko epea: uztailaren 15etik 24 arte (biak barne).** Eskaera-orriak sinatua egon beharko du eta bertan, eskatzailearen datu pertsonalak eta ordezkatzen duen Elkartearenak adieraziko dira. Eskatzaileak orriarekin batera lortutako dirua zein helburutarako erabiliko duen zehaztu beharko du.

Eskabideak **elektronikoki aurkeztuko dira Hondarribiko Udalaren egoitza elektronikoko Sarrera Erregistroren bitartez**. Horrez gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik ere aurkeztu ahal izango dira.
Bide elektronikoa erabili beharko dute horretara behartuta dauden subjektuek (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 14.2 artikulua): besteak beste, pertsona juridikoek eta izaera juridikorik gabeko erakundeek.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Esleitua izan den elkarte bakoitzak, arduradun bat izendatu beharko du, egun horietan zehar sor litezkeen arazoak udal teknikariekin koordinatu eta erabakitzeko. Era berean, eta hala behar izanez gero, berekin harremanetan jartzeko telefono-zenbaki bat eman beharko du. Telefono-zenbaki hori ezingo da ordezkatzen ari den Erakundearen telefono-zenbaki bera izan.

**ESKAEREN ONARPENA ETA POSTUEN ESLEIPENA**

4.- Eskaerak onartuak eta baztertuak bezala sailkatuko dira eta Kultura zinegotziak sinatutako ebazpen baten bitartez onartuko dira, zozketa egin baino lehen.

Elkarte edo sail beraren izenean eskaera bat baino gehiago aurkeztuko balitz, hauetako bat bakarrik onartuko da.

5.- Gehienez 6 txosna jartzeko baimena emango da, hauen artean 1, gizarte mailako elkarteei erreserbatuko zaie eta, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten erakundeei.

6.- **Jendearen aurrean egingo den zozketa bikoitzean esleituko dira txosnak. Zozketa Udaletxeko Areto Nagusian egingo da uztailaren 30eko 13:30ean.** Lehenengo zozketan gizarte mailako elkarteek parte hartuko dute. Bigarrenean, beste motako elkarteak eta lehenengo zozketan aukeratuak suertatu ez direnek.

Zozketan banatuko den plano batean, esleituak izan diren elkarteek, esleipenaren arabera beraien txosnaren kokapena erabakiko dute.

7.- Ezinbestekoa da elkarte guztietako ordezkariak zozketara agertzea. Ordezkariren batek bertaratzerik ez badu, aldez aurretik justifikatu beharko du eta telefono zenbaki bat eskaini beharko du Udalaren deia jasotzeko.

8.- Esleitu zaionetakoren batek zozketan egokitu zaion postuari uko egingo balio, Udalak postu hori bete gabetzat joko luke, eta ondorioz ordezkoei esleituko die.

**BALDINTZA EKONOMIKOAK, TEKNIKOAK ETA BAIMENA**

9.- Txosnak Benta Zaharreko aparkalekuan kokatuko dira.

10.- **SEIEHUN €ko (600 €) FIDANTZA zehazten da, beti ere (eskudirutan) banketxe batean ezarriko dena,** egokitutako espazioaren erabilera eta funtzionamendu egokia, eta klausula hauen eta indarrean dauden arauen betetzea bermatzeko.

Kopuru hau gainditzen duen kalteren bat gertatuz gero, sortzaileak ordaindu beharko du.

11.- Esleitzen zaion bakoitzak, jarduerari ekin aurretik erantzukizun zibileko poliza bat sinatuko du, gutxienez 150.000,00 €ko estaldura duena, jarduera horrek dirauen bitartean gerta litezkeen kalteei, Udalaren instalazioetan egin litezkeenei eta txosna bakoitzean saltzen den edari edo janariaren ondorioz gerta litezkeenei aurre egiteko.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Hondarribiko Udala

**Fidantza ordaindu izanaren ziurtagiria eta erantzukizun zibileko polizaren ziurtagiria elektronikoki aurkeztuko dira Hondarribiko Udalaren egoitza elektronikoko Sarrera Erregistroren bitartez, 2024ko abuztuaren 26ko 13:00ak baino lehen.**

12.- Erabat debekatuta egongo da tabakoa saltzea eta 18 urtez beherakoei edari alkoholdunak saltzea; debeku hori adierazten duen kartela bistan jarri beharko da. Kartela Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak emango du; era berean, Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak edukiz gero, eskainitako alkoholimetroak erabiltzaileek eskuratzeko moduan jarriko dira.

Halaber, indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio, prebentzio eta arretarako materialak banatuko dira, eta horiek ere ikusteko moduan jarri beharko dira.

Horretaz gain, esleipendunek Kultur Etxean egingo diren ondorengo prestakuntzetan parte hartu beharko dute, derrigorrez:

- **Abuztuaren 27an:** arriskuen prebentzioaz Udalak eta Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak antolatutako prestakuntza-saioa (9:00-11:30 gaztelaniaz / 12:00-14:30 euskaraz)
- **Irailaren 2an:** Udaleko berdintasun sailetik antolatutako Jai parekideen gaineko formakuntza (9:00-11:30 gaztelaniaz / 12:00-14:30 euskaraz)

Elkarteetako kideen prestakuntza indartzeko, urtero egingo dira azken prestakuntza horiek, eta elkarte bakoitzeko pertsona batek parte hartu beharko du bakoitzean. Parte-hartze horrek, gainera, orekatua izan beharko du parte-hartzaileen sexuaren arabera.

13.- Txosnak gehienez 8x6 metrokoak izango dira. Esleituak instalapenen erabilera egokiaz eta garbiketaz arduratuko dira, zaborrak eta hondakinak poltsa itxietan aterako dituzte eta horiek, Udalak jarriko dituen edukiontzietan utzi beharko dituzte.

Kaxak, botilak eta antzeko material guztia ahal den neurrian postuaren barruan eduki beharko dituzte.

14.- Udalak jarriko du argindarra, 3500 w-ko potentzia txosna bakoitzeko, ez ordea ura eta instalazio elektrikoa. Horretarako baimena duen enpresa batek egin beharko ditu konexioak. Ikuskapena egiten den unean dagokion instalazio elektrikoen buletina aurkeztuko da, instalatzaileak sinatua eta konpainia hornitzaileak zigilatua. Metalezko elementu guztiak lurrera konektatuko dira, eta isolamendu akats edo zeharkako kontaktuen aurkako segurtasun gailuen funtzionamendu egokia ziurtatzeko beharrezko erresistentzia izango dute elementu horiek.

Onartu egingo da hainbat txosnak hariteria elektriko bateratua izatea, betiere baldintza tekniko egokiak betetzen badituzte.

Hobetsi egiten da aire bidezko hariteria, eta ez da zilegi hariak zoruan zehar joatea, ibilgailu edo pertsonen joan-etorritik babestu gabe.

15.- Sugarra edo bero-fokua duten instalazioak jartzen badira, su har dezakeen edozein elementutatik metro bete baino urrunago egongo dira, edo bestela, behar bezala babestuak eta tenperatura edo koipeek instalazio elektrikoei kalte ez egiteko moduan. Gasezko tresna guztiak homologatuak izango dira, eta beharreko aireztapena izango dute.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

16.- Instalazio elektrikoen ondorioz sor daitezkeen kalteengatiko erantzukizunak ez nahasteko edo saihesteko, esleipendunek tekniko bakar bat kontratatu beharko dute txosna guztietarako. Energia ekoizteko ekipo autonomoak debekatuak daude.

17.- Bakoitzak bere megafonia erabili ahal izango du. **Megafonia hori ezin izango da erabili jaietako egitarauaren barruan antolatutako ekintzen orduetan, Bentako kontzertuen soinu frogak egiten diren bitartean edo/eta Udalak hala eskatzen duen beste edozein momentutan.**

18.- 16 urtez beherako gazteak txosna barruan egotea edo lanean aritzea debekatuta dago.

19.- Elkarte esleipendunak instalazioak behar bezala erabiltzeaz eta bertako garbitasuna mantentzeaz arduratuko dira. Instalazioak ezingo dira aldatu. Debekatua dago eguzki-oihalak edo beste edozein motatako estalkiak jartzea. Materialak, kutxak, ontziak eta abar txosnen barruan edo horretarako ezarriko den eremuan gordeko dira.

Esleitzen zaienek **edalontzi berrerabilgarriak** erabiliko dituzte.

Elkarte esleipendunek saldutako produktu guztiak Industria Baimendunak izango dira.

Prestatuta saltzeko elikagaiak manipulatu nahi badituzte (hanburgesak, sandwichak, eta abar), manipulatzeaz arduratutako pertsonek MANIPULATZAILE TXARTELA IZAN BEHARKO DUTE. Elikagaiak manipulatzeko era garbian eta egokian jantzi beharko dute.

Hondakinak botatzeko, erraz garbitzen diren ontzi estankoak erabiliko dira. Birzikla daitekeen materiala (kartoiak, beira, eta abar) bereizita jarriko dira birziklatu ahal izateko.

Esleipendunak beteko ditu beti ere osasun-higiene arauak, eta salmentan ezarri beharreko artikuluen edo instalazioen gaineko araudi bereziek agintzen dituzten bestelako arau guztiak.

Publikoarentzako salmenta prezioak euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira karteletan.

20.- Erabiltzaile eta okupatzaileen segurtasuna ziurtatuko dute txosnek. Halaber, 21-113B eraginkortasuneko hauts balioanitzeko bi su-itzalgailu egokituko dira txosna guztiek erabiltzeko, Udalak eta esleipendun guztiek jakin behar duten beste leku batean. Ez jartzea txosna guztien erantzukizuna izango da.

21.- Postuak **irailaren 6an** zabaldu daitezke eta **irailaren 11n** itxiko dira. Postua jartzeko 48 ordu eta kentzeko 24 orduko epea izango dute esleipendunek.

22.- Postuak ireki eta ixteko eta megafonia erabiltzeko 2024rako ordutegi proposamena honako hau izango da (Udaltzaingoarekin adosteke dago eta aldaketaren bat egon daiteke):

| EGUNA | IREKITZEKO ORDUA | IXTEKO ORDUA | MEGAFONIA |
|---|---|---|---|
| 6 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 7 | 11:00 | 3:00 | 2:00 |
| 8 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 9 | 11:00 | 5:00 | 4:00 |

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

| | | | |
|---|---|---|---|
| 10 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 11 | 11:00 | 1:00 | 00:00 |

**PROZEDURA ADMINISTRATIBOA ETA ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA**

23. Jarraituko den prozedura eta esleipendunei eskatzen zaien dokumentazioa ondoren idatzita datorrena da.

a) ESKABIDEA, agiri honetako 1., 2., eta 3. puntuetan ezarritako baldintzetan.
b) ZOZKETA, agiri honetako 6. puntuan ezarritako baldintzetan.
c) Abuztuaren 30a baino lehen: Esleipendunek Kultura Departamentuaren oniritzia jasoko dute, 10. eta 11. puntuetan zehaztutako honako agiriak aurkeztu ondoren:
   - Fidantza ordaindu izanaren Egiaztagiria.
   - Erantzukizun Zibilaren Asegurua sinatu izanaren Egiaztagiria.
d) Jarduerari ekin aurretik, (txosna jendeari begira irekitzea), esleipendunek Udal Zerbitzu Teknikoen aurrean honako agiriak aurkeztu behar dituzte:
   - Eskumena duen teknikariak sinatutako berariazko Egiaztagiria. Bertan adieraziko da instalazioak aplikagarria den araudi guztia betetzen duela eta segurtasun, erosotasun eta higiene izaerako baldintza guztiak betetzen dituela, eta ondorioz funtzionamenduan jar daitekeela eta jendeari begira ireki daitekeela.
     *Eskumena duen teknikaria honakoa izango da: Muntatzailea (fabrikatzaileak eta hornitzaileak gaitua) eta antolatzaileak eta titularrak gaitutako teknikaria (Arkitektoa, Arkitekto Teknikaria, Ingeniaria, Ingeniari Teknikaria).
   - Txosnen eta barruko osagaien barruko krokis mugarritua.
   - Instalazio Elektrikoaren Egiaztagiria (Instalazio elektrikoaren Buletina) instalatzaileak behar bezala zigilatua.
   - Osasun prestakuntzari buruzko egiaztagiriak (manipulatzailearen txartela) elikagaiak manipulatzeko ardura duten pertsonen kasuan, baldin badaude (19 puntuko 4. paragrafoa).

e) d) puntuan eskatutako dokumentazioaren ordez, eskatzaileak edo ordezkariak sinatutako zinpeko aitormen bat ere aurkeztu ahal izango da eta bertan adieraziko dute agiri horiek eskatzailearen esku daudela.
   Dokumentazio hori eskuragarri egongo da edozein unetan egiaztatzeko, Udal langileek hala irizten badiote.

f) Udal Teknikariak egiaztatu egingo du aurkeztutako dokumentazioa, eta hala badagokio txosnaren irekitze baimena emango dio.

24.- Zehaztapen eta baldintza horiek betetzen ez badira, eskabidearekiko ezezko iritzia izango da, eta ondorioz ezetsi egingo da, eta txosna itxi egingo da funtzionatzen ari bada.

**ZIGOR ARAUDIA**

25.- Esleipendunaren arau-hausteak, Udaltzaingoak egindako espedienteetan jasotzen direnak, arin eta larri modura sailkatuko dira, ondorengoaren arabera:

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Hondarribiko Udala

| FALTA MOTA | ARINA | LARRIA |
|---|---|---|
| Hautsitako artikuluak | 13, 17 eta 20 | |
| Hautsitako artikuluak | | 2, 12, 14, 16, 18, 19 eta 22 |

26.- Arau-hauste horiek honako zigor hau jasoko dute:

- Falta arinak 1.200,00 € arteko isuna.
- Falta larriak 1.201,00 €tik 30.000,00€ra bitarteko isuna.

Dena den, larriak diren faltek, edota errepikatutako falta arinek hurrengo urteetan txosna jartzeko aukera gal dezakete, Udalak horrela baderitzo.

Isunak ordaintzen ez badira, hurrengo urteetan zigortutako elkarteak ezin izango du txosnarik jarri.

Elektronikoki sinatutako dokumentua
**ALKATEA,**

**Izp.: Igor Araneta Enparan**

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Hondarribiko Udala

**CONDICIONADO PARA LA ADJUDICACION Y FUNCIONAMIENTO DE LAS TXOSNAS QUE SE INSTALEN DURANTE LAS FIESTAS DE HONDARRIBIA - 2024**

## OBJETO

El presente pliego de condiciones tiene por objeto regular la solicitud, adjudicación, instalación y estancia de txosnas en el aparcamiento de la Benta durante las **FIESTAS PATRONALES** del día 6 al 11 de septiembre de 2024, conforme a las condiciones que seguidamente se especifican.

## SOLICITUDES

1.- Podrán presentar solicitud de instalación de txosnas las entidades o asociaciones culturales, deportivas, recreativas o sociales, sin ánimo de lucro, constituidas conforme a la legalidad vigente e inscritas en el Registro de Asociaciones y Entidades del Gobierno Vasco, que tengan su domicilio social en Hondarribia.

2.- No podrán acogerse a la presente adjudicación:

- Partidos políticos, coaliciones, centrales sindicales.
- Asociaciones que en consideración del Departamento de Cultura, quien concede la autorización, no utilicen las ganancias obtenidas en las txosnas en beneficio del fin para el que fueron creadas.
- Asociaciones y organizaciones que discriminen por razón de sexo ni por factores de discriminación múltiple en su proceso de admisión o en su funcionamiento. Tampoco a aquellas que no permitan u obstaculicen la participación de las mujeres en condiciones de igualdad con los hombres en las actividades culturales que desarrollen.
- Las Asociaciones y organizaciones que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

En el caso de las asociaciones o entidades de carácter cultural, deportivo o recreativo, se aceptará la solicitud y la adjudicación posterior por sorteo a las que cumpliendo todos los requisitos tengan su sede o delegación en la Comarca del Bidasoa, siempre y cuando el número de txosnas previstas no sea ocupado por asociaciones de dicha índole de Hondarribia.

3.- **El plazo de presentación de solicitudes para las y los interesados será desde el día 15 de julio hasta el día 24 de julio (ambos incluídos).** En la solicitud, que deberá estar firmada, figurarán también los datos personales de quien la realiza, y los datos de la Asociación a la que representa. Junto con la hoja de solicitud, las y los interesados deberán presentar información relativa al destino de los ingresos que obtengan con la txosna.
En la instancia, la entidad solicitante deberá señalar a la persona que actuará como interlocutora con el personal técnico municipal para solventar cuantos problemas puedan surgir en el transcurso de los días. Deberá también dejar un número de teléfono para contactar con dicha persona; dicho número telefónico no podrá ser el número de la Asociación que representa.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Las solicitudes se presentarán **telemáticamente a través del registro de Entrada de la sede electrónica del Ayuntamiento**. También podrán presentarse por el resto de vías detalladas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Estarán obligados a presentarlas por la vía telemática las personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica y demás sujetos a los que se refiere el artículo 14.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**ADMISIÓN DE SOLICITUDES Y ADJUDICACION DE TXOSNAS**

4.- Las solicitudes serán clasificadas entre admitidas y excluidas, y serán aprobadas mediante Resolución del Concejal responsable del Area de Cultura con anterioridad al acto del sorteo.

En el supuesto de recibir solicitudes diferentes pertenecientes o en representación de una misma asociación o sección, se tomará en consideración una única solicitud.

5.- Se autoriza la instalación de un máximo de 6 txosnas, de las cuales 1 estará reservada a las solicitudes de entidades o asociaciones de carácter social y en especial a aquellas que promuevan la igualdad de mujeres y hombres.

6.- **Las txosnas serán adjudicadas, mediante un doble sorteo, en un acto público, que tendrá lugar el día 30 de julio, a las 13:30 horas, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Hondarribia.** En el primer sorteo entrarán las entidades o asociaciones de carácter social. En el segundo entrarán las asociaciones de otra índole así como las que no hayan sido agraciadas por el primer sorteo.

Las asociaciones adjudicatarias elegirán la ubicación en el mismo orden que el del sorteo mediante plano de ubicación de las txosnas, que será entregado en la sesión del sorteo.

7.- La asistencia al acto del sorteo por una persona que represente a cada asociación es totalmente obligatoria. Si no puede asegurar su presencia, deberá justificarlo previamente y ofrecer un número telefónico de contacto al Ayuntamiento.

8.- Si alguna de las asociaciones adjudicatarias renuncia al puesto asignado mediante sorteo, una vez finalizado el acto del sorteo, el Ayuntamiento declarará vacante y, en consecuencia, será adjudicada a alguna de las Asociaciones suplentes.

**CONDICIONES TECNICAS, ECONÓMICAS Y AUTORIZACION**

9.- Las txosnas se instalarán en el espacio del aparcamiento de Benta Zaharra.

10.- Se fija una **fianza de SEISCIENTOS (600 €), que deberá ser depositada, en metálico, en una entidad bancaria,** en garantía de la correcta utilización y funcionamiento del espacio asignado, así como en garantía del cumplimiento de las presentes cláusulas y normativa general vigente en la materia.

En caso de producirse daños por encima del valor de la fianza, la Asociación correspondiente se obliga a pagar lo necesario para hacer frente a los daños causados.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Hondarribiko Udala

11.- Cada asociacion adjudicataria deberá suscribir, previo al inicio de la actividad, una póliza de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 150.000,00 € para cubrir los daños que pudieran ocasionarse durante el desarrollo de la actividad, los daños producidos en las instalaciones municipales, como los derivados de la ingestión de los productos que en cada txosna se expenda.

**Tanto el justificante de pago de la fianza como el de la póliza, deberán presentarse telemáticamente a través del registro de Entrada de la sede electrónica del Ayuntamiento, antes de las 13:00 horas del 26 de agosto de 2024.**

12.- Quedará totalmente prohibida la venta y suministro de bebidas alcohólicas y tabaco a menores de 18 años, debiendo colocarse en lugar visible un cartel señalando tal prohibición. Dicho cartel lo suministrará el Servicio de Prevención Comunitaria. Del mismo modo, si los hubiere, se dispondrán de modo accesible a los usuarios y usuarias los alcoholímetros facilitados por el Servicio de Prevención Comunitaria.

Se entregaran tambien diferentes materiales de sensibilización, prevención y atención contra las violencia machista que también deberán colocarse en en lugar visible.

Asímismo, las asociaciones adjudicatarias deberán acreditar la participación en las sesiones específicas de formación sobre el protocolo de actuación contra la violencia machista y la prevención de riesgos que serán impartidas los siguientes días en Kultur Etxea:

- **27 de agosto:** sesión formativa sobre prevención de riesgos organizada por el Ayuntamiento y el Servicio de Prevención Comunitaria (9:00-11:30 castellano / 12:00-14:30 euskera)
- **2 de septiembre**: formación para unas fiestas igualitarias, organizada por el Área de Igualdad del Ayuntamiento (9:00-11:30 castellano / 12:00-14:30 euskera)

Con finalidad de reforzar la formación de las y los componentes de las asociaciones, se desarrollarán anualmente estas formaciones a las que cada vez deberá de asistir una persona diferente de cada asociación. Esta participación, ademas, deberá ser equilibrada respecto al sexo de las y los participantes.

13.- Las txosnas instaladas tendrán unas medidas máximas de 8x6 metros. Las asociaciones adjudicatarias se harán cargo del buen uso y limpieza de las instalaciones, debiendo depositar basuras y desperdicios en bolsas desechables cerradas que a su vez lo serán en los contenedores instalados al efecto por el Ayuntamiento.

El almacenaje de cajas, envases y cualquier otro material se hará en lo posible en el interior de los puestos.

14.- El Ayuntamiento facilitará la toma de energía eléctrica, autorizando una potencia de 3.500 w/ txosna, no así la acometida de agua ni las conexiones eléctricas. Estas conexiones deberán ser realizadas por una empresa autorizada para ello, debiéndose presentar en el momento de la inspección y en todo caso en el de la apertura, el correspondiente boletín de instalaciones eléctricas debidamente firmado por el instalador y sellado por la compañía suministradora. Todos los elementos metálicos se conectarán a tierra cuya resistencia será suficiente para garantizar el buen

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

funcionamiento de los dispositivos de seguridad contra defectos de aislamiento o contactos indirectos.

Se admitirá la instalación electrica conjunta de varias txosnas, siempre que cumplan las condiciones técnicas adecuadas.

Se prefiere el tendido aéreo de cables, no permitiéndose cables por el suelo sin agrupar o proteger del paso de vehículos o personas.

15.- En caso de incorporar instalaciones con llama o foco de calor, éste deberá quedar a más de un metro de cualquier elemento susceptible de arder, o en su caso protegido debidamente y de manera que no afecte por temperatura o deposición de grasas a las instalaciones eléctricas. Cualquier aparato a gas estará debidamente homologado, de manera que disponga de ventilación suficiente.

16.- Con el fin de evitar que se mezclen y/o se diluyan las responsabilidades que pudieran producirse como consecuencia de las instalaciones eléctricas, las asociaciones adjudicatarias deberán contratar una única persona técnica electricista para el conjunto de las txosnas. No se permitirán grupos autónomos de producción de energía.

17.- Cada asociación adjudicataria podrá utilizar megafonía individual. Esta megafonía no podrá utilizarse durante el desarrollo de los actos previstos en el programa oficial de fiestas, durante las pruebas de sonido de los conciertos de la Benta y en cualquier otro momento que así lo solicite el Ayuntamiento.

18.- Queda prohibida a menores de 16 años la permanencia y ejecución de trabajos en el interior de las txosnas.

19.- Las asociaciones adjudicatarias se encargarán del buen uso y limpieza de las instalaciones. No se podrán modificar las instalaciones. Se prohíbe el uso de toldos y de cualquier tipo de protector. El almacenaje de cajas, envases y cualquier otro material se hará en el interior de los puestos.

Las asociaciones adjudicatarias utilizarán obligatoriamente **vasos reutilizables.**

Los productos que vendan las asociaciones adjudicatarias contarán con la autorización de Industria.

Si se quieren manipular alimentos para venderlos preparados, las personas encargadas de ello deberán estar en posesión el CARNÉ DE MANIPULADOR. Para manipular los alimentos se vestirán de manera limpia y adecuada.

Para recoger los residuos utilizarán recipientes estancos que se limpien fácilmente. El material que pueda ser reciclado (cartones, vidrio, etc.) se almacenará aparte para que pueda ser reciclado.

En cualquier caso, las asociaciones adjudicatarias deberán cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Los precios de venta al público se mostrarán en euskera o en euskera y castellano.

20.- Las txosnas deberán garantizar la seguridad de las personas usuarias y ocupantes. En este sentido dispondrán para su uso conjunto para todas ellas, de dos extintores de polvo polivalente de eficacia 21-113B instalados en otro lugar conocido por el Ayuntamiento y por todos las y los interesados. La no provisión de los mismos será responsabilidad de todas las txosnas adjudicatarias.

21.- La apertura de los puestos podrá comenzar el día 6 de septiembre y finalizará la noche del día 11 del mismo mes, teniendo las asociaciones adjudicatarias a su disposición un plazo de 48 horas para el montaje y de 24 horas para el desmontaje de los puestos.

22.- La propuesta de horarios de 2024 para apertura como para cierre de los puestos y de la megafonía general, será la siguiente (está por acordar con la Guardia Municipal y puede haber cambios):

| DIA | APERTURA | CIERRE | MEGAFONIA |
|---|---|---|---|
| 6 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 7 | 11:00 | 3:00 | 2:00 |
| 8 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 9 | 11:00 | 5:00 | 4:00 |
| 10 | 11:00 | 6:00 | 5:00 |
| 11 | 11:00 | 1:00 | 00:00 |

## PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO Y DOCUMENTACIÓN REQUERIDA

23. El procedimiento a seguir y la documentación requerida a las asociaciones adjudicatarias será la que a continuación se redacta:

a) SOLICITUD, en los términos establecidos en los puntos 1, 2 y 3 del presente documento.
b) SORTEO, en los términos establecidos en el punto 6 del presente documento.
c) Antes del 30 de agosto: las asociaciones adjudicatarias recibirán el Vº Bº del departamento de Cultura, previo cumplimiento de los puntos 10 y 11, con la presentación de los siguientes documentos:
   - Acreditación de haber abonado la fianza.
   - Acreditación de haber suscrito el Seguro de Responsabilidad Civil.
d) Previo al inicio de la actividad (apertura al público de las txosnas), las asociaciones adjudicatarias deberán presentar ante los Servicios Técnicos Municipales, los siguientes documentos:
   - Certificación expresa suscrita por técnico competente de que la instalación cumple toda la normativa de aplicación y reúne las condiciones necesarias de seguridad, comodidad e higiene, y por tanto puede ponerse en funcionamiento y abrirse al público.
     *Se entenderá por técnico u técnica competente: Montador/a (con habilitación de quien fabrique o suministre), o personal técnico designado por quin organiza (Arquitecto/a, Arquitecto/a Técnico/a, Ingeniero/a, Ingeniero/a Técnico/a).
   - Croquis acotado de la txosna y de la distribución interior de los elementos.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

- Certificado de Instalación Eléctrica (Boletín de Instalación Electrica), debidamente firmado por el instalador o instaladora y sellado por la compañía suministradora.
- Certificados de formación sanitaria (Carnet de manipulador) de las personas encargadas de la manipulación de alimentos, si procede (punto nº 19 – 4º párrafo).

e) La documentación requerida en el punto d), podrá ser sustituida por una declaración responsable (redactada por solicitante o representante), donde se declarará la existencia de dichos documentos en poder de quien solicita. Dicha documentación deberá estar accesible para su comprobación en cualquier momento, si el personal municipal autorizado asi lo requiriera.

f) Comprobación Técnico municipal de la documentación entregada y, si procede, autorización municipal para apertura de la txosna.

24. El incumplimiento de tales especificaciones y requisitos deparará una consideración negativa de la solicitud y la consiguiente desestimación de la misma, o clausura de la txosna en caso de estar en funcionamiento.

**REGIMEN SANCIONADOR**

25.- Las infracciones que cometa el adjudicatario y que queden recogidas en las correspondientes Expedientes de la Policía Local, se calificarán como leves o graves ajustandose a las normativas en vigor resumidas en el siguiente cuadro:

| TIPOLOGIA FALTA | LEVE | GRAVE |
|---|---|---|
| Infracción artículos | 13, 17 y 20 | |
| Infracción artículos | | 2, 12, 14, 16, 18, 19 y 22 |

26.- Las faltas cometidas conllevarán las siguientes sanciones:

- Las faltas leves serán sancionadas con una multa de hasta 1.200,00 €.
- Las faltas graves serán sancionadas con una multa de entre 1.201,00 € y 30.000,00 €.

No obstante, en el caso de las infracciones graves, o las infracciones leves reiteradas, el Ayuntamiento podrá tomar la determinación de impedir que la Asociación adjudicataria pueda optar a las futuras convocatorias.

El no abono de las multas hará imposible la adjudicación a las asociaciones infractoras en años venideros.

ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1

Hondarribiko
Udala

Documento firmado electrónicamente
**El Alcalde,**

**Fdo.: Igor Enparan Araneta**



EKS | CSV: **ESKU8fa06b7b-8730-4db8-b921-c596680ba9d1**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*